



KOSTALDEAREN DEFENTSA



Mundakako bateriaren kañoi-zuloak, Ogoño Lurmuturra eta Antzorako bateria non egoan kokatuta

Historian zehar Bizkaiko Jaurreria gatazka ugaritan sartua egon izan da eta zer esanik ez ba itsasaldea bere bai. Elantxobe itxosoari lotuta dagoen herria izanda, onerako zein txarrerako, erasoak bere handik etozan. Eraso honeri aurre egiteko derrigorrezkoa zan aurretiaz prestatuta egotea eta holan sortu ziran talaietan eta leku altuetan kañoi bateriak ezartzea. Talaia honetatik urruneko belauntziak errez ikusten ziran (Ogoño Lurmuturraren kasua) eta sarritan, gotorleku edo fortinak bere bihurtu ziran. Aurretiaz jakinez gero etsaiak etozana, kañoiak prest egozan tiro egiteko eta altuera aprobetxatuz haren balak urrunago helduten ziran.



Mundakako Santa Katalina basilizako bateria (Aranzadi-Airquality)

Historian adituari kasu eginaz Bizkaiko kostaldean, Muskizetik Ondarrura, 64 talaia gotorleku modura erabiliak egon ziran, nahiz eta danak batera martxan egon ez; gehienez 40 edo 50 egon ziran sasoi batean. Bateria gehien Bermion (10), Lekitton (6), Getxon eta Santurtzin (5), eta Ondarrun eta **Elantxoben** launa. Beste herri batzutan hiruna (Ea, Bakio, Zierbena eta Muskizen), bina (Mendexa, Mundaka, Gorliz eta Sopelan) edo bana (Ispaster, Ibarrangelu, Berriatu, Plentzia, Gorliz edo Barrikan)

Talaia gotorleku honeen eraikitzea, normala dan legez, oso garestia zan Bizkaiko Aldundiarentzako eta horretarako zenbait kasutan auzokoez, bolondres modura edo, egiten eben behar. Kasu batzutan armen biltegi modura ermitak edo baselizeak erabili ziran, Elantxobeko San Nikolas esate baterako, baina ez oraingo elizea, lehenago egungo Gorgonio Renteria Kultur-Exearen ondoan egoana baino.

Elantxoben dirudienez holako lau gotorleku egon ziran. Portu mailan ona ez izatean (1736), *“hatx asko inguruan eta abar, orduko belauntzien aurka egiteko ez zan gehiagorik behar izaten eta harresi edo horma bat egitea nahikoa ei zan handik 50 mosketarik edo tiratu ahal izateko lihorreratu nahi ebenen kontra”*.

Gotorleku honeen eraikuntza zenbait gatazkaren ostean etorri zan eta “Espainiako Suzesio Gerra” (1700-1714) ren ondorioz izan eben euren hasiera. Liskar honen atzetik “Austriako Suzesio Gerra” (1740-1748) hasi zan eta kasu honetan Ingalaterrako armada boteretsuak hartu eban parte kostaldea bere menpe eukala. Gerora bere beste gerrate bi sortu ziran “Konbentzio Gerra” (1793-1795) eta “Espainiako Independentzia Gerra” (1808-1814). Azkanengo gerra honetan gotorleku asko suntsituta gelditu ziran frantziarren eta ingeles armadaren eta bertoko gerrilarien liskarretan. Honela mendetako lan eskergak pikutara egin ziran joan. Ondorioz lehenengo Karlistadea hasten danerako (1833-1840) gotorleku honeetako kañoi bateria gehienak ez eben ezertarako balio edo errekupezino lan haundiak behar ebezan.

GURE KOSTALDEKO LEHENENGO BATERIAK

Lehenengo ezagutzen dan gotorlekua XVIII garren mendekoa da (1703) hain zuzen be.

Egun inork ez daki nun egon zan kokatuta, baina “Portuko bateria” legez ezagutua izan zanez portuan bertan egoala pentsatu behar da. Bateria hau 1805 garrenean erretiratu zan eta beran ordeztu “Puntaleko bateria” zeritzona ezarri zan.

Gerora eta 1785.etik 1805.era beste gotorleku bat aitatzen da “Atalaiako bateria” izenez eta orduko kronisten arabera San Nikolas baselizearen aurrean egoan eta nahikoa ei zan Elantxobeko portua defendidu ahal izateko. Kokapena ba, argi dago egungo Talaia izenagaz ezagutzen dan plazula edo behatokia dala. Kultur-Etxearen ondoan, nahiz eta honen aztarnarik ez dan aurkitu. Antza danez bateria barri honen zergatia 1782 garren urtean hasi zan, zeinetan gerrauntzi ingeles batek Elantxobe nahi izan eban hartu. Hau ikusita herriko agintariek berehala eskatu eutsoen Bizkaiko Jaurreriari kañoi gehiagoren beharrezana. Lanen kostua 7100 errealekoa izan zan, zeintzuk erabili ziran lurrak erosteko, polbora biltegiarentzako, muniziotarako eta kañoiak egiteko, honeek zenbat izan ziran ez dakigularik. Orduko kronisten arabera kalibre eskasekoak ziran, altuegi kokatuta egozan, mobilidade gitxi euken eta portura bertara jaitea komenigarriagoa zala uste eben. Konbentzio Gerran erreformatu ziran eta gerora XIX garren mendearen hasieran desmontatu egin ziran.



Hirugarren bateria izen desbardinekaz ezagutua izan zan “Errege Josefen Puntaleko batería” edo “Gurbistiko Puntalekoa” (1805-1809). Portuko darsenaren sarrera kontrolatzeko egoan ekialdeko partean lur-mutur txiki baten gainean. Nahiz eta 1802an hasi zan eraikitzen hiru urte beranduago arte ez zan egon prest; atzerapena orduko agintarien desadostasunengatik etorren zan: batzuen ustez kokapena ez zan egokiena, aldapa haundiegia, hatxen jaustearren arriskua, bertara heltzeko bidea eskasa eta honen ondorioz ba lanak garestiago aterako zirala etabar; lekuaren izena Puntalaguna zan. Proiektua aurrera eroateko Antonio Muniategi eta Jose Eiguren maisuak izendatu ebezan eta aurkeztutakoa zan errektanguloan eta harrilanduzko hormakaz zeintzutan 8 kañoi-zulo edo tronera jarri ebezan, 5 itxosora apuntatzen, 2 ekialderantz eta bestea portura. Biltegia, polbora etabar gordeteko, atzekaldean egoan. Garestiegia zala eta azkanean hiru tronera baino ez ziran jarri; halan da be aurreko proiektua baino garestiago atara zan. Bere aztarnak oraindik ikusi egin leitekez Ibarrangelurako bidean beste eraikuntza bat izan arren gainean. Honen arrastoak baino ez dira geratzen gaur egun Elantxoben. Gotorleku honen iraupena oso laburra izan zan ze lau urte baino ez zituala Independentzia gerran ingelesak kañoiak Lapatzara bota ebezan. Harrezkero defentsarik barik geratu zan Elantxobe nahiz eta kañoi bat errekupezino eta portuko moila puntan jarri zan. Hogeitau urte beranduago hau bere kendu egin zan.



ZULOMENDI EDO ZULOGAÑAKO BATERIA (1826-1838)

1827-1828 biurtekoan Aldundiak beste bateria bat eraikitzeko asmoa eukan eta kronisten arabera Sulogaña zeritzon (Zulomendi edo Zulogaña bateria). Lautada txiki baten gainean egoan behenganea harlosaz estalia eta lau tronerezkoa ei zan; alboan, txabola baten, biltegia kokatzen ei zan. Bateriaren eraikuntzarako lur-sail bi erosi ziran “Lalaenecua” zeritzon toki baten eta 16000 errealeko kostua izan eban; egun ez dakigu nun egon eitekean baina antza danez Ogoñoeko hatxaren alboko toki altu baten edo. Gotorleku honen historia besteena lakoa izango da, eta lehenengo Karlistada hasi eta batera liberalen (belarrimotzak) agintariek konfiskatu egin ebezan eta harrezkero guztiz abandonatuta geratu zan.